



Efoma-Bafikano'rik.

Tarento'ko Eukaristi-Batzafean Ordelari izan zan Fumasoni Biondi kardenalak, Aita Santua ikertu dau angu yai edefen bafi emoteko. Beragaz yoa ziran gustiak an ziran; Aita Santua'k bere poz andia agertu eutsen zifneste -yai ain edefak egin diralako, Yauna' ren aintza ta gogoen onerako. Batzordeari berarizko zorionak emoten eutsezala esan eutsen.

—Beste ikertzaile asko be izan ditu. Irugafend pantzeskar talde bat; 150 lagun Agnani'koak; Messina'ko erkiko 10 buruñurdun Brasil'eruntz mixiño-lanetara doazanak; Milan, Breşcia ta Sasari'ko ikasle-talde bat; 45 Katoliko-Ekintza'ko neskatila, abade, zuzentzaile ta lekaike-talde. Gustiei oi daben itzalditza egin eutsen.

Zenbat mixifolari?

Mixiñoetan lan egiten dabenak gutiz 197.752 dira. «Guida de la Misioni Catolice»n 1933'ko zenbakuntzak diñanez. Zenbaki onetan sartzen dira Mesadun eta anai laguntzaileak 23.907, lekaikeak 35.907, katekista ta irakasleak 138.572.

Gizonezkoen artean ugariak onexek dira: Pantzeskafak, 3.600; yosulagunak, 3.591; kaputxiñoak, 1.208, efeedentoristak, 1.245; Bosko Deunaren salestafak, 1.056; eta enparauak milaik bera dira.

Lekaikeen artean: Maitasun-Alabak 4.577; Artzain Onarenak, 2.977; Maria'ren pantzeskar Mixiñolariak, 2.162; Espiritu Deunaren mirabeak, 1.411; Chartres'ko Aitzak, 1.378; Cluny'koak, 1.121; enparauak milaik bera.

Langile ugari dirala esan lei; baña zifnesgeak zenbat diran begiratu ezkerro, eta bide onera ekarteko aspirtatu bear dituen eragozpenak gogoan euki, eta zerbait egiteko eralgi bear dituen dirutzak, egiz esan geinke «uzta ugaria dala, baña langileak gitxi».

Italfar Gafedi - Katolikoa Lourdes'en.

Ainbesie guda dabilen artean, bakezko lanik edefena eginaz, 1.200 gastek bidezkundea Lourdes'era egin dabe, 200 gexo eroanaz. Lourdes'ko Gotzainak Mesa esan eutsen eta itzaldi bat egin be bai esanaz, poz-pozik agurtzen zituala Lourdes'ko Gotzain lez eta Prantzia'ko Gafedi-Katolikoaren Lendakari izandako lez. Eta Aita Santua'ren itz oneikaz amaitu eban: «Efi gustiak Bakearen Eregiñari otoi egin dagioela, euren gurariak zuzentasunez aseak izan daitezala, baña batez be bakez». Italtar gasteak zeozer bearko dabe angu guda aizeari eutsiteko.

Alemania'ko katolikofak.

Hitler buru dala, alemandar katolikok gofiak ikusten dagoz, agintariak Aita Santua'gaz egin eben Itunbenari yaramonik ez dautselako egiten. Gai onetzaz egunokaz argitaldu dira Salzburg'eko Gotzain Waitz agurgafiak esan dituan itzak, eta ikusten denez yasarpena gero ta gogofagoa izateko bidean doa. Gotzain agurgafi onek diñonez an gertatzen dan gustiaren efua Hitler'ena da, berak zuzenez egiten ez dabena ingurukoak berak galarazo barik egiten dabe-ta. An yazoten dana yakitea ez da gauza efeza, izpafingial be lagatzen dautsena bakafik argitaldu leikie-ta. Gotzain batek be usterik ez dauko Hitler'en itz eta agintzetan. Katolikoak zerbait okeretan afapatzeko alegin gustiak eta bide gustiak ontzat artzen ditue, yazokun onetan ikusi geinkenez. Munich'eko Gongotzainaren yauregian bertan ixileko «mikrofono»ak ipiniita aurkitu ditue, eta ufutizkiñakoa entzun egiten dautse. Ondiño geyago. Eleizaren aurkako batzafak berak eralduak dirudie. «Olango batzafak izan dira, «tanke»

pila «bera abadeak! bera lekaretzeak!» idatzita eroan dabenak tartean dirala». Zelan ori egin agintariak tartean izan ez ba'kira? Hitler'tar gasteak eleiza -aufetan yafi ta katolikoei zemakuntza egiten auzez ikusten dira. Oiturak oso yausita dagoz; baña, alan da gusti be, katoliko-eleizkizunetan iñoz baño gizoste andiakoak ikusten dira. Efoma'n uste dabe, hitlertar alderdiko ezker-tafenak berez yausiko dirala, eta bes-teak laster agintaritzaz yabetuko dirala. Bitartean «jeroapena, eroapena ta erospena!». Ez dago beste biderik eginbeafak ondo bete ondoren.

Riese'n X'n Pio'ren gomutaz.

Aurten bete dira eun urte X'n Pio agurgafia Riese'n yayo zala. Eritafak bere gomutaz yai edefak egin ditue; baña batez be bere yayotetxean bizi-zako gomutakiakaz, bildegi edo museo bat egin dabe, eta antxe atxurdiñezko irudi edefa egin dabe. X'n Pio yafita agertzen da, onespina maitekor emoten dagola. Loghin agurgafiak onetsi eban gizoste andiaren aurfen eta gero Fortini, As's'ko endore Podestá yauna, itzaldi edefa egin dau X'n Pio'ren aintzaz. *L'Osservatore Romano*'n osorik ikusi dogu ta benetan txukuna da. Gero Aita Santua'ri agur bat bialdu eutsen eta bere erantzunean X'n Pio'ren gorabenik andienak egiten ditu. Bere irudiaren inguruan lateraz agertzen dira Aita Santutzan egin zituan bafizkunde afigafien azalben laburtxo bat.

Albait lasteren deunen izendegian ikusiko al dogu...

Pantzetar Katoliko Nekazariak.

Pantzetar Nekazari Katoliko Gasteak, Tours'ko urian ospatu dabe lenengo batzar orokofa. France'ko alde gustietatik 4.000 ordelari eldu ziran. Egun bi igaro zituezan nekazarien artean zabalkundea egiteko bideak aztertzen. Auzetik euren Mesa ta Yau-nartzea izan eben. Gaillard Gongotzain agurgafiak bere poza agertu eutsen, Aita Santua'ren onespina eskini-az. Artu dituen erabagien artean, agintarien laguntza lugin-auziak ebazteko bear diñoe. Lugin-lanak giza-lege, zuzentasun ta maitasun legepean izan bear dala dabe, eta beste erabagi batzuk Aita Santuen Idazkien irakatsiak arautzat dabenak.

Roosevelt eta katolikoak.

Cleveland'eko Gotzainak, Latefi Batuetako Lendakari Roosevelt'eri dei bat egin dautso, laster ospatuko dan Eukaristi-Batzafera. Lendakariak idazki bat zuzendu dautso esanaz, bere arazoak dirala-ta yoa ezin ba-da be, garaitza andi bat opa dautsela eta ordezkotzat Fanley yoango dala-ta, berak gezna bat bialduko dautsela, eta bera yoa al izango ba-da be ikusiko dabela.

Katoliko ez izan afen, Lendakariak nonbait ikusten dau katolikotasunak bere laterian daben gafantzi andia, ta «uste zintzoa» dauko alde gustietatik begiratuta Batzar ori edefenatarikoa izango dala.

Burdinbide langileen batzafa.

Paris'en ospatu dabe burdinbide katoliko-langileak euren XVI'n Batzar orokofa. Bazkun onek gafantzi andia dau, 10 latefitan 100.000 bazkide ditu. Katoliko bazkun oneri dagokiozan arazo ta erabagiyak aztertuko dira, baita katoliko irakatsi arauak gogo eukita latefi arteko erabagiyak. Onango Batzafak egoki baño egokia-gotofoiko litzakez beste toki batzuetan be, kistar-gogoa bazkunetan sartzeko aurkerakoak izaten dira-ta.

M'tar G.

Irakuri ta zabaldu EKIN



Naparroa

Iruña.

Udazkenean gaudela diote; baño uda minean bezenbat berotzen du.

Juan den igandean, Iruñe'ko gazteria geiena Donosti aldera jo zuen.

Oraiko aldi untan, zer da ikusge'fagorik zalui, tximista-bezala ibiltzen baño?, auto-lastefa ikustera, jendeketa gaitza juan zen emendik.

Juan den igandean Donosti'ra juan zirenak ez dakit Jainkoa otoiztu ote zuten bakearen alde; emen gelditu ginenak guztiek ezpada, geienak, eliza guztietan, gute Jaunartu eta otoitzak bakearen alde, egin ginituen, «Acc'ón Católica»ko bazkideekin batio.

Orai artio Dozimeako Apezpiku izana, Aita Joaquin Olaiz, Kaputxiño; Iruñe'ko bere amaian artera itzuli da osasun eskasez. Jainkoak detzala, sendatu eta sendotu dadin.

Kolonbia'ko Bogota'n, Luis Olaz kantaria ohore irabazten ari omen da, tenor bezala.

«Efe belafa» batzakoek erabaki dute, emen, Nafafoa'n efebela landatu daitekela eta idortu.

Tafala'ko Instituta etsi dutela ikasle gutiegiz, Tafala eta inguruko efitafak kexu daude, nola Nafafoa'ko buruziagaz asaldatu ez diren.

España'ko irakasle katolikoak asafea erakutsi diote Llopis delako ministro izanak, efan dituen itz baztuengatik.

Irakasle katolikoak zer ote daitezke bildu eta bazkidetu, berek laikoak Mosku delakoekin adiskidetzen direlarik?

«Tudela» delakoan, «Eusko ikaskuntzak» egin eta eman dituen ikasgaitara, asko bildu omen da; eta bozik daude lan ortara juan direnak; itzaldi jakingafiak egin dituzte Lapazaran-Uranga-Galastegi eta Gortari injeniero jaunak.

Troncoso-Fuentes eta Galindo jaunek ere, itzaldi edefak egin omen zuten.

Igandean zuten azken eguna, eta ikastaroari etsia eman zioten «Eusko ikaskuntzako» buruzagiek eta Diputazioneakoak.

Eldu dan igandean «Euskararen adiskideak» euskal jai bat egin gogo dute «Huarte Araquil» efan.

Meza nagusia, aufen examiñak, pilota partida, bertsolariak eta zerbait geiago.

«Euskararen adiskide»n izenean, arata juaten diren gustiak otoizten ditut ez dezatela itz bat ere erdaraz egin: erakusteko, euskararen adiskidetasunak ori duela ezagupidetzat.

Eldu dan larunbatean, Iruñe'ko Orfeona; Corela delakora doa kantatzera; ederki oril!

Nafafoa'ko muga barnean ere, geldi dadielal!

Roncal edo Efonkari aldean, nonbait ba omen dabila kamion batekin, liburu protestanteak saltzen; Ebanjelio eta idazti zaafak.

Juan den igandeko gofien bilkura geroko utzi bear izan dute. España'ko Gobernua efekan dagolako, debekatu dute.

Gobernua efekaratu dutenek zer ote dute zerbeit geiago nai?

Bedere, langileek, ufiko urte mugakari bezala; oroitzapen gisaz edo gobernuko gizonak beldurtu beafez, gobernuko gidefak utzarazteko eta berek befiz lotzeko... langileak lanartea nai zuten; baño, beldurturik edo... utzi dute.

Naasle zenbeit iltzera epaiturik ere badirelako? nor daki ez ote duten ori nai, beren kidekoak, direlako, bere gain utz zitzaten?

Nola nai den dela... gu, bakea eskatzen bertzeentzat eta gu, beste gisako gudu itsusi betetarik ezin eskatu.

Egun gutxitan, ufezko iru diru atzeman dituzte eta Eliza nagusiko ebaskotik ez izakil!

Bide zabal baten zati bat «La Poble'ón eta Bernedo» efitarik barna egin bear dena egiteko, eman nai dute.

Efioja'tik Araba'ra egiten ari diren bideko zati bat da.

«Euskaltzaleak» aitzina ere egin nai du «olerki eguna» Bertsolarien eguna» eta «Euskaldunak» Orixe jaunaren poeme argiteltzeko dago.

Irujo jauna beti erne bai dago: Nafafoa'ko jauneri egia latzak efiten ari zeie: oyanen mufizteari buruz.

«Hermandad del Arbol» delakoaren eskatzeari ezetz efateko, ez dela aski «neces'idad de orden social» y de «Vida del pueblo.» Ariztegiak buluzteko eta oyanak lur gofitzeko, ori ez dela aski; nola ez den, gizonen onbeafa, Banketxeen ebaste.

Urbilen aldi artio, Jainkoak ala nai duela.

LAREKO

Bizkaya

Bilbao.

Lengo igandean egin ziran Eran-dio'n «Txori Efiko Jaiak», ospe andiaz. Ofaitiño, itzaldirik ez zan izan, Madril'eko Gobernuaren crisis-a zala-ta, Gobernadoreak debekau egin zituakoa.

—Portugalete'n lengo domekaz egiñiko estropadetan, Oriotafak urten eben irabazle beste irurai alde andia ateraurik. Aren ufengo sartu ziranak, Sestao, Ondafabi (legortafak) eta Ondafabi (itzastafak), alkafeganik alde andirik ez eben atera.

—Bilbao'ko «Athletic»-eko ostikolariak geure artean doguz, Amerika (Mexiko) aldean udaldia igaro osten. Esamesa andiak sortu ditu ostikolarien Mexiko'ra ostera onek. Antza denez, Mexiko aldean futboleant postura asko egiten da, eta «Athletic»-en alde jokatu daben angu espafafak buruko azkureaz gelditu ei dira.

—Norte Estaziño bafiko lanak lengunean efematu ziran eta zazpi miloan artu ditu emengo batek. Laster asiko ei dira lanok.

—Bilbao eta ingurumarietan, 17 mila lagun dagoz lanik barik, edo obeto esan, 9.500'ek ez dauke ezetarik lanik, eta 7.500 estean bi edo iru egunean baño ez dabe lanik egiten.

Itzas-untzietako pleitak edo ekar-tariak, gefeaien zufumufuokaz, go-

rakadaxoa egin dabe, baña seguruen eunekoak bere gorantz egin dauanez, or dabiltzaz «Nabieratako azifnoak» Boltsan, lemarik bako untzia itxasoan legez, «driban.»

—Guztion adizkide Efenteria'tar Gorgoni jauna, Zeanuri'n arako bafefitafen omenezko jayan itzaldi bat egin osten, ondo-ezik jafi zan eta oindiño kalera urten barik dago. Obetoxuago dagola entzun dogu, ofaitiño. Jaungoikoak emon begio osasuna.

—Paper-ofi debekatuak zabaltzen eta ormetan iminten ekin dakioe oindiñokafen. Lapufetak ainbat izan dira, asteon bere. Ba dauke lan onik efitzaiñak guztioak. Txifelak, as-paldion, platano keke saltzaleeri ez dautse baketan izten, ez eta «goitik bera»-dun mutilei bere: olako ogetabi tramankulo kendu eutsezen muleri lengun baten.

—Euskalduna'n egindako lau kañoneru untzi, Mexiko'ra urten ziran lengunean. Oindiño beste bi dagoz osoro amaitu barik.

—Lengo eguazteneko batzafean, erabagi itzaia artu dau Bilbao'ko Udalak: Alkateari eskubide betea emotea, arek noiz gura eta Udal Batzefari kontu-efazoe emon barik «enpladu eventualak» eta noizipeñiango ogipekoak edo langileak artzeko. «Noizipein» ori, bear baño sfiago izango ez ete dan bildur da emen jentea. Geroak esango dau.

—Diputaziñoa ez dabil diruz itoten, oyez. Lendakariak agindu gafatzak emon dautsez bere ogipeko, zergari (kontribuziño batutzale) eta ariel, batzaleeri (zeladoreeri) aurf-erantzean zuur baño zuufago iñar-duteko zerga, ariel eta petxu guztiak jasoten. Batez bere, salerosleak, baltsokoak edo konpañietakoak barik, bakafekoak izaten diranean, ez ei dabez irabaziak bear dan legez aurtortuten, zergagitxiago ordainduteko, jakiña, eta olako askori ezafi gura ei leukioe eskua, bear dan legez galenduteko.

—Zala'n, eskopetazko tiruaz senargaya il ebalakotzat kartzelan sarturiko neskatilea, kalera atera dabe; eta ildakoaren anaye bat, ostera, kartzelan sartu.

—Urtaro legez, Diputaziñoan, eta Bilbao eta inguruko batzoki guztietan, ufilaren batean asiko dira euzkerazko ikastaroak. Iñolzku joranik geyen dago aurten euzkeraz ikasteko.

ULEJUAN

Mañari.

Erijotza.

Igandez il zan Ortuoste'tar Zipriano gizona. Jaunak zeruan euki begi. Sendijari atsekabian laguntzen dautsagu; batez be ildakoaren ilobia dan Ortuoste'tar Jasone Efeño'ko emakume begiokari.

Gotzain bat.

Egubenez egon zan emen, Artaraz Aita Indo-txina'ko Gotzain agurgafi-ja. Gotzain jaun onek, bere aizkide zafa dan Bafenetxea'tar Polentzi abade jaunaren etxian bazkaldu eban. Ona geure efitxu au be zelako gizon andijak ikertuten dabilen. Poztuteko da...

Kolonbia'ra.

Emen ile batzuk igarota, lengo astian jua zan Kolonbia'ra, Jon Pan-teska Aia Karmeldar mixiolarija. (Mutikotan emen «Telerija»ko Patxi ko ixenaz ezagutzen zana). Ata agurgafijau, len be Kolonbia'ko luf-ald'an Kisto gure Jauna'ren irakatsi deunak zabaltzen amasei urtian ibilli-ja ixan da. Ondo ibili, euzkotar zintzo-zintzo oril

Ira ebañen.

Egunokaz, ira-ebatelak dirala-ta, mendijak lagunez beterik dagoz. Eguraldi ona daukoe.

Guzura ta nastia.

Alditxu ontan, guzura, nastia ta prestuezerkija ugeri be ugeri da efi, ontan. Ori dala-ta lantzian bein, Muga'fako landara edo, iges-egiteko gogoak emoten dausta; antxe bakez bixiteko be. Ofatik baña, efijan bertan gogortzia oba ixango litzake Muga'fako landara bertara be gaur «ze-gozer» baño geyago biar-bada eldu-ko litzake-ta...

Aboto'ra.

Lengo egun baten, Lafano'ko es-talpia ikusten, Kamiruaga'tar Basili, Untzalu'tar Todor gixon prestuak aufetik zirala, Madariaga'tar Nikase, Afiznabafeta'tar Atanase, Subinaz'tar Jone ta neu, goxian-goiz urten da jua gintzazan. Eta Urkiola'ko deun-etxian danok meza bat entzun da gero, danpa-danpa mendijak igarota, beingo baten Lafanoratu gintzazan... ¡A zuan eguraldijal Bertako zugazti eder baten, akefa ta guztiko bazka-rija jan gendun; eta gero, bazka-ostian, Gorostitza'tar Kornell'ren etxetxua ikustera jua gintzazan. Etxia polita da, eskaratza bafiz txu-kuna ta betia; eta eskaratz artako orma baten, Barbare deunaren irudi poliña, atsegiñez ikusi gendun; baña tximiña ganian egozan euzkerazko liburu on onak be berarizko poza emon euskuben, Gorostitza'tar Kornell'k esan euskun, liburu on areik, ango artzañai irakurten dautsezala; ta artzain zintzo areik, irakufija po-zez ta afetaz entzuten dabiela. Oxe bai dagola edertol

MAÑARIKO

GORUNTZ - GAYAK

Eunak, bale-bizafak, zumitz ugar-gaitzak

Zubiri'tar Bingen

Artekañe, 50

BILBAO

Erigoiti.

Lilitegi ta bere lagunai.

Erabagi da, Efegenetan Kristiñau Ikasbidea ondoen dakien efi guztiko umeai sariak emotea; baña sarli-gayak bear doguz, eta zuok neskatilok zarie onenak sari-gayok bilatu-teko; batzuk dirua batuagaz, beste batzuk oyal edo telak zuzenduagaz, gona, praka, amantal, bufuz, bata edo beste onango batzuk egiteko; batez be gaur onetarako ezta bear oyal asko, iru txakufeko kana bat perkalegaz zenbat gura praka tagona egin leiz. Beste batzuk oneik josia-gaz edo eskuetan galtzerdi, jerse edo elastiko batzuk egiñagaz, edo bakotxak al daben eran. Ia batzen ba-zarie neskatila guztioi eta ezer egiten do-zuen.

Eriotzak.

Biestebaso'ko Andres de Afien eta Uri'ko Felix de Itufi il dira. G. B. Lagunduten deutsegue euren sendiai atsekabeen.

Eltekizuna.

Irugafen Ordenakoak egin eben domekan ileroko euren eleizkizuna. Itzaldia egiten A. Amunategi euki gendun. Goxean pozgafizko Jaun-ar-tze andi bat izan zan.

Etofiak.

Madrii'etik, bere amaren ondoan egun batzuk igaroten etofi da A. Juan de Otazua, trinitarioa.

Itzaldia.

Ileroko itzaldia Eleiz Gastiediekoal egin eutsien domekan D. Bizente de Urkiza jaunak.

S.

Eleiz - Jantzi ta urregintza

A. Rui-Wamba

Eleizak lasteko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke

Plaza Nueva, 10 Ufutzikiña 14.238

BILBAO

Metxika (Erigoiti).

Ila onen 14'an, Bizkaigane'ko ba-sotxadonatzuan izan zan, ta gero... ta gero, diñok mutil, afatsaldian bein-tzat... a zan ba... ezan entzuten bes-terik euzkotar abesti samufak, iñun diran «ujujuak» ta euzkotar jolas edefian jolastuten zirala tanbolin so-ñu dunduratsuban. Albo efietako gus-tijak be lanari itxita gora begira ezti-

ñen zer egun ete zan oldoztu eziñik. Neu, bafiz, ilun abafian alan abestu, jolastu ta ujujuak egiten daben dabe-zanak zeozertxu barik ezin itxi lei-kezala-ta, morokila ta esnia artun da joateko nengoan, ta bien bitartian alde ezosten egin ba? Ganera, obarik bai ete? ¡A, tamalgafijal!

Jai euzkotar au egitia asmau dabe-nak emakumiak ixan ei-dira, ta da-tofen urtian, bafiz, ikaragafizkoen bat egin biar ei-dabe. Ondo dago; baña ez dakit, emakumien burutazi-ñuak tzeptexan langoak dirala esa-ten dabe-ta.

Ikastaroa.

Beti lez, ila onen 16'an asi dira gure auzo-ikastoletako ikastaroak. Baña atzera be itxi daus'tuz Aldun-diak esanaz: arik eta irolatara ure ipiñi artian ez dirala idigiko.

Agurtu.

Igandean emen agurtu genduzen Pelo ta Andoni. ¡Mendigoxale az-kafak dozuz eurak, gero! Gernika'n asi ta Metxika'ra ta emetik asi ta Mungia'ra mendirik-mendi Afieta'tik ziar joan yatzuz. Ofaitiño ufengoan etorteko gogoak kenduko yatzuen e?

Baita beste mendigoxale batzuk be izan ziran Bizkaigane'ko mendi txontxortxuan. Efi gitxik dabela uste dot ainbeste ikuskizun dabezan mendi orlegi ta poliña, ba bertatik agiri dira: Laida, Izaro, Txatxafamendi, Busturia, Solube, Jata, Afieta, Mungia, Fruniz, Gamiz, Morga, Bizkar-gi, Oiz, Urduiz, Serantes, Castro Urdialez, Santurtzeko nasea, Getxo'ko argi-dofea, Bilbao ta beste aitatu eziñeko beste gauze.

Lekaide.

Astelenez, lekaide zintzoak izate-ko gogo biziagaz Algorta'ko Iruko-itz'tafen lekaidetxera eroan ebazan gure jaupari maite onak, Joseba, Jo-seba Mirena, Markelin, Emili ta Bal-domero mutikotxuak. Lekaide onak zatia opa dautzuet.

LILITEGI

Marin eta Goikolea

(Ien Apellaniz y C.ª)

Santugintza; Altara, Pulpito Konfesonario ta eleizetarako beste zul-lanak

Castilla, 31

VICORIA

Euzko - Idaztitegia

Ingi ta idazkai gustiak

EKIN asteroko onen artu-emonak ementxe egin zeinkez

BILBAO

Ribera, 4^{g.}

18987 Urut

Akorda.

Aspaldiko indijabarik edefenak do-guz aurten, altzua bafiz batuten asi ordurako beteten jaku. Artuak, Jau-na'ri eskefak, begijak malotuteko la-kuak agertuten diraz, udagoyeneko basefi ondasuna atzegintsuba agiri da. Bakar-bakafik oluak dabe ufita-suna, atautzia agiri da «eskasrxu»; bai ba, «mike» aldija dabe-ta, ¡zer egingo dautsagul!

Juan dan asteko EKIN'en «Gexua osatu befa» ixenduta idazlan bat agiri zan. Asi nintzan irakurten eta neure kolkorako niñuan: ¡ze afayo, neuk be iñoiz onenbeste esan niñuan! Bira neban ofija, eta nun ikusten do-dan neure ixenpea. ¡Nundik afayo egin dira idazlan aregaz! Eskefik -asko EKIN'eko zuzendari azkafoi.

EKIN'en tokirik ezaz ainbat efi geratuten ei dira agertu barik. Bai ba, baguaz geruago ta negua bafura-go dogula, ta auferantz efi geitxua-go be agertuko dira. Udaldian esku-tauta edo alpertuta egoten diran as-ko, neguek bizkortuten dauz. Baña au aspertu barik gura litzake, uda ta negu, urte osuan, ezpabe «preferen-tzija» emon biarko jake, alan jafatu dabenari. ¡Ez dok olan!

Mila ta befeun esker ene «Mañari-ko» idazleme zintzo oferi. Zeure go-mutia geyago aintzatu dot urteko bazkaririk edefena baño, baña tama-lez zeuk bialdu dauskuzuzan bezuzok ez dira geure urdalera eldu, «Abele-txe»k esango dautzu zer jazo dan. Baña, dana dala, neure eskefak zeu-gaz dozuz. Beste baten zuberte obia izango ei dogu.

OGOÑOPE

Eunak eta soñeko egliñak Zea'ra'tar Erupin

Cenderia 15

Bilbao

Munitibar.

Basefi'arentzat.

Gure uritxu an basefi utz-utza dan ezkeru, auxe egin bear dogu: basefi'arentzat idatzi.

Gaur egunian, gure basefi'afok, itxasoko olatu bixien erdian galdu-gordian dabilan itxas-ontziaren iru-dian bizi dirala esan geinke: artega ta lafi.

Lafitasun ofetatik azkatu gura da-benak, baña, badauka adizkide on bat, launtzale zintzo bat, zein dan «Euzko Nekazari Alkartasuna» derit-xon bazkun edo alkartasun kemen-txua.

Bazkun au Bizkaia'n lugliñak jafi dogula aldi luzarik eztan afen, beron-en lan eta nekazarien alde egin dabezan jua-efotiak, ez tira beinguan aztutekuak. Askok uste ixan dabe biar ba-da, Alkartasun au geldi do-guala, il zorijan daguala; baña, ez, bazkun onek auferakada andiak da-giz, gau ta egun nekazarien alda lan bixiak egiñaz.

Lengo astian esan neutzuen, zelan ila onen 29^{gn.} egingo zan efi onetan itzaldijak nekazari'ontzako; baña gaur beste zerbait esan beafean nago: Afatu dautzube dan egun ofetan, itzaldi ostean, batzafa ixango dala Efota'ko aretuan, eta au dala-ta, del egiten yake «Euzko Nekazari Bazkuna»ko bazkide guzti-guztiai etofi daitezala batzar ofetara, euren onerako ixango da-ta.

GOIZ GOFI

Esakera bat gogoratu daust zeure izenak: «Gau gofi, galgafi; goiz gofi, ongafi.»

Markina.

Jaiak.

Il onen 29 ta 30^{gn.} izango dira Afetxinaga'ko Mikel deunaren jaiak. Beti lez mesa nagusi ta eleizkizunak izango dira, ta gero bafenolari, kar-ga-jasotale ta idi probak be ikusi bearko doguz. ¡Zer gaitik ez ete da egiten Afetxinaga'n bertako espata-dantzea, nok egin dagoan ezkeru?

Gotzain jauna.

Datofen ilaren 7^{gn.} ei yatorku Gotzain jauna sendatza emotera ta eleizetan bere ikerkundera egitera. Ongi etofia izango al da.

Meabe'n

igaro dan igandean egin ziran Kosme ta Damian deunen jaiak. Deun ofen

(12)

ALDEZKETA - GAYAK

(APOLOGETIKA-GAYAK)

KISTARA NAZ ¿ZER DALA-TA?

NABAIZTARA'k atondua.

Ja'alkuna

5. **Gixañtiak.** Gixañte ta gixabatarentzako daun lera edo jokera bixija Jauna'gandikua dau gixonak, ixatezkua da-ta. Gixabatza eginpidia be Jaungoi-kua'gandik datof. Orezkero, gixañtiak Jaungoikua Jaun eta Jabe, Ongile eta Epai-kari dau-ta, agintarijak gixañteko agintari diranez Jauna guñtu egin biar, ta gixañtian uskuñtza zabaldu ta inda'ntuten alegindu.

Gixañtian uskurtz-eikixupetarako biar-biañak dira ufengo gai oneik: agiriko ofoitzak, elexak, jauparijak, jayegunak.

OSTEKITZAK. 1.^a Goiko Jauna'k eztaula gure guñtza ta jaurespen-biañik, eta oretzaz ardura be ez edo dala.

Er. Geuk dogu, bafiz, len esan danez, Jauna guñtu ta jauretsi biaña. Jaungoikua'k, uskuñtza bereztat

biar ez ixanañen, gixonarentzat biañezkua egin dau-ta, oretzaz ardura dala argi dago.

2.^a Jauna'k gixonaren bijotz-ba'ruba argi daku-sanezkero, agiriko jaurespenak alpeñikuak dirala; eta oretzako, sendijak, sendi danez, agiriz, Jauna guñtu biañik eztaula.

Er. Agiriko jaurespenak, alpeñikuak barik, bañu-kuak obeto egiñeko-ta alagalakuak doguz: gogua ta gorputza estu-estu lotuta dagozalako jazoten da ori.

Orezkero, sendija uskuñtzale ixatia bidezkuia ta onuratsuba danik ezin ukatu.

3.^a Gixabatza eginarijak, ludi ontako zorijon eta ondo-ixana baño bilatu biar eztabenezkero, us-kuñtz-arazorik eztagokijela.

Er. Gixañtiak ludi edo mundu ontako zorijona betiko zorijonerako arteztu ta zuzendu biar dau, azken-elburuba da-ta; oretarako, bariz, uskuñtza nai-ta-ezkua ixan. Orezkero, gixabatza eginarijak be uskuñtzaz ezin arduragetu; aldeztu ta indartu egin biar dabe, ostera.

Uskuñtz onik bat baño ez.

1. Uskuñtza, ona ixateko, egizkua ixan biar; egizko uskuñtzik, bariz, bat baño eztauteke ixan, egija bakaña da-ta.

Guzura egundo ezta ona ixango; eta Goiko Jau-na'k guzuzeko uskuñtzik ezin dau onañtu ta atsegin ixan.

2. Uskuñtza, ona ixateko, Jauna'ren nai-arauzkua ixan biar; Jauna'ren nai-arauzko uskuñtzik, bafiz, bat baño izan ez.

Ar. Jaungoikua ezagun, mañe ta ondo guñtuteko biañezkuak diran egi ta eginza gustijak onañtuten dauzan uskuñtza da Jauna'ren nai-arauzkoa, ostantze-korik ez.

OSTEKITZAK. 1.^a Bakotzak bere uskuñtza egizkua dala esaten dau-ta, benetan egizkua zein dan ezin dogula jakin.

Er. Esatia ezta naiko, egiztau egin biar da; eta, geruago ikusiko danez, egizko uskuñtza zein dan argi ta garbi egiztau dafeko, ofetarako argibide asko dira-ta.

2.^a Judañ-uskuñtza ta kistañ-uskuñtza, bijak egiz-kuak ei-dirala.

Er. Josu-Kisto baño len, judañ-uskuñtza zan egiz-ko bakaña; judañ geyenak Josu-Kisto Urtzi-Semetzat autoñtu nai ixan ezebenezkero, bafiz, judañ-uskuñtza ezta egizkua, ziñeskañ ta eginza gustijak onañtzen eztauzalako. Oraingo uskuñtz egi bakaña kistañ-us-kurtza dogu, geruago egiztauko danez.

(Ufengoan geyago)